

## **Blogoneskak plataformaren (edo blog komunitatearen) aurkezpena**

Azken aldian asko ugaritu dira euskarazko blogak eta hauen artean badira zenbait blog ikuspuntu feminista lantzeagatik aipagarri direnak. Ikerketa, ikuspuntu eta diskurtso feministarekin askotan gertatzen dena gertatzen da hemen ere; sakabanaketa nabaria da eta ekarpen indibidualetara mugatzen da blog hauetan egindako lana. Horregatik elkarren berri izateko eta elkarlanean indarra biltzeko euskarazko blog feministen plataforma osatzea pentsatu dugu. Badira adibide batzuk gazteleraz, hala nola, [www.lopersonalespolitico.com](http://www.lopersonalespolitico.com) , [www.mujaresenred.net](http://www.mujaresenred.net) barruan dagoen blogosfera feminista edo [www.bloggeras.com](http://www.bloggeras.com) blogen plataforma feministen artean eta [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) , [www.eibar.com](http://www.eibar.com) edo [www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) euskal blogosferen artean. Eredu horietatik abiatuz blog komunitate edo plataforma euskalduna eta feminista sortzea premiazkoa dela iruditu zaigu eskuragarri jartzeko ekarpen multzo hau.

Proiektu honen aurkezpena egiteko aukera ezin hobea da apirileko jardunaldi feministak. Bertan taller bat egitea pentsatu dugu. Batetik plataforma berri honen aurkezpena egingo genuke eta bestetik plataforma horretara bilduriko blogen aurkezpena ere.

Hona hemen orain arte egin dugun behin behineko zerrenda (batzuk konfirmatu gabe daude oraindik eta agian beste batzuk gehituko dira apirilerako):



masterkas

**Pri**publikarrak

pripublikarrak



Placida 2.0



Aitziber Eguskiza



Herne talde feminista



medeak



Grupo de COEDUCACIÓN  
ZUBIAK ERAIKITZEN  
HEZKIDETZA taldea

zubiak eraikitzen



sareinak

Hau aurkezpen xumea besterik ez da, baina ari gara fanzine moduko bat prestatzen, talde honen manifestua idazten eta interneten plataforma egoki bat bilatzen pixkanaka pixkanaka...

Gurekin konkatzeko: [amaia.au@gmail.com](mailto:amaia.au@gmail.com)